BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

# BATZAR NAGUSIEK, GERNIKAN ETA ABELLANEDAN EGIN DIRAN JARDUERA IRISGARRI ETA INKLUSIBOAKAZ HURBILDU DABE EUREN ONDARE BALIOTSUA

- **Bizkaiko Batzar Nagusiek bat egin dabe Ondarearen Europako Jardunaldiakaz, eta aldi baterako erakusketetara eta ondarera bisita gidauak egin ditue, desgaitasuna daukien personei egokituta.**

- **Jarduera bietan sarrera mugatua da eta aldez aurretik erreserbau behar da.**

(Bilbon, 2021ko irailaren 21ean). Bizkaiko Batzar Nagusiek bat egin dabe, aurton be, Foru Aldundiak koordinetan dituan Ondarearen Europako Jardunaldiakaz, Gernikako eta Abellanedako egoitzetan egingo diran hainbat jardueragaz. Desgaitasun fisiko edo sentsoriala daukien personen parte-hartzea bilatzen dabe, hareen eukia kolektibo horrentzat egokituta.

Aurtengo “Ondare irisgarria eta inklusiboa” programaren bidez, Bizkaiko Ondarearen Europako Jardunaldien sarea osotzen daben persona, entitate eta erakunde guztiei konbitea egiten deutsee Bizkaiko Batzar Nagusiek, alkarrizketarako eta ekintzarako esparrua zabaltzeko eta askotariko audientziakaz konektetako, gure ondarearen aurkezpenean eta interpretazinoan betidanik baztertuak izan diran taldeakaz alkarreragiteko topaketak sustatuz. Holan, jarduera didaktiko honeek antolatu dira hurrengo hiru zapatuetarako:

ESKUAKAZ BERBETAN (GERNIKA)

“Eskuakaz berbetan” Gernikako Batzar Etxetik egingo dan ibilbide gidaua da, jente guztia integretea eta ez bereiztea helburu dauena. Jarduera horrek plaza mugatuak ditu eta entzumen-dibersidadea daukien personek hartu daikie parte, baina baita Bizkaiko Batzar Nagusien eta bere egoitza nagusiaren historia ezagutu gura dauen edozeinek be. Horretarako, Batzar Etxeko teknikari bat eta zeinu-mintzairaren interprete bat egongo dira.
**Eguna eta ordua**: urriak 2, zapatua, 11:15ean
Izena emoteko: https://ondareabizkaia.eus/jarduera-erreserbatzea/

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

EULALIA ABAITUAREN EMAKUMEAK ZALOAREN ESKUTIK (ABELLANEDA)

Abellanedan dagon Enkarterrietako Museoa 1934an inaugurau zan. Garai haretan Eulalia Abaitua bizirik egoan oraindino, gitxi ikusitako gizartearen parte bati, emakumeena, argazkiak ateraten jakin eban emakumea. 60 urte geroago, 1994an, Museoak bere hirugarren "barrinaugurazinoa" ospatu eban, eta Zaloa, denpora luzez ikusezin bihurtutako beste kolektibo bateko kidea, Down Sindromedun personena, beharrean hasi zan bertan. Orain biak batuko doguz eta Zaloaren eskutik "Eulalia Abaituaren emakumeak" erakusketea bisitauko dogu eta begirada posible bat baino gehiago dagozala ikusiko dogu.
**Eguna eta ordua**: urriak 9, zapatua, 11:00etan.
Izena emoteko: https://www.enkarterrimuseoa.eus/home/index.asp

"EULALIAK IKUSIKO BAGINTU: ASKOTARIKO EMAKUMEAK GAUR EGUNGO BIZKAIAN" JARDUNALDIA (ABELLANEDA)

Bisita gidau biez gain, Enkarterrietako Museoak Eulalia Abaituaren irudiaren inguruko jardunaldia antolatu dau. Eulalia Abaitua, XX. mende hasierako emakumeen unibersoa erretratau eta egunerokotasunaren esentzia jaso eban euskal argazkilaritzaren aitzindaria izan zan. Kultura anitzeko topaketa batean, hainbat emakumek Eulaliaren beharraren inguruko hausnarketea egingo dabe, bere beharrean hautemoten dan euskal emakumeen unibersoa barriro definiduz eta gaur egungo Bizkaira eroanez. Eulaliak ikusiko bagintu femeninotasunaren zer irudi islatuko leuke bere obran? Zelan ikusten dogu geure burua XXI. mendeko emakumeok Eulaliaren obran?
**Eguna eta ordua**: urriak 16, zapatua, 11:00etan.
Izena emoteko: https://www.enkarterrimuseoa.eus/home/index.asp

NOTA DE PRENSA

# LAS JUNTAS GENERALES ACERCAN SU VALIOSO PATRIMONIO CON ACTIVIDADES ACCESIBLES E INCLUSIVAS EN GERNIKA Y ABELLANEDA

- **La Cámara vizcaína se une a las Jornadas Europeas de Patrimonio con visitas guiadas a sus exposiciones temporales y a su patrimonio cultural, adaptadas a personas con discapacidad.**

- **En dichas actividades el acceso es limitado y se necesita reserva previa.**

(Bilbao, a 21 de septiembre de 2021). Las Juntas Generales de Bizkaia se han unido un año más a las Jornadas Europeas de Patrimonio que coordina la Diputación foral con varias actividades que se desarrollarán en sus sedes de Gernika y Abellaneda, y que buscan la participación de personas con discapacidad física o sensorial, ya que su contenido ha sido adaptado para este colectivo.

A través del programa de este año “Patrimonio accesible e inclusivo”, el Parlamento de Bizkaia invita a todas las personas, entidades e instituciones a que forman parte de la red de las Jornadas Europeas de Patrimonio de Bizkaia y a ampliar el marco de diálogo y acción y conectar con audiencias más diversas, promoviendo encuentros para interactuar con los grupos que tradicionalmente han sido excluidos en la presentación y la interpretación de nuestro patrimonio. Así se han organizado las siguientes actividades didácticas para los tres primeros sábados de octubre:

HABLANDO CON LAS MANOS (GERNIKA)

“Hablando con las manos” es un itinerario guiado por la Casa de Juntas de Gernika que busca integrar y no diferenciar a públicos diversos. En esta actividad, con plazas limitadas, pueden participar personas con diversidad auditiva, pero también todo aquel que desee conocer la historia de las Juntas Generales de Bizkaia y de su sede principal. Para ello, se contará con la presencia de una técnica de la Casa de Juntas y de una intérprete de lengua de signos.
**Día y hora:** Sábado, 2 de octubre, a las 11:15
Inscripciones: https://ondareabizkaia.eus/jarduera-erreserbatzea/

LAS MUJERES DE EULALIA ABAITUA DE LA MANO DE ZALOA (ABELLANEDA)

El Museo de Las Encartaciones de Abellaneda se inauguró en 1934. Por aquel entonces aún vivía Eulalia Abaitua, una mujer que supo fotografiar una parte de la sociedad poco visibilizada, la de las mujeres. Seis décadas después, en 1994, el Museo celebró su tercera "reinauguración" y en ese momento entró a trabajar Zaloa, miembro de otro colectivo durante mucho tiempo invisibilizado, el de las personas con Síndrome de Down. Ahora uniremos a ambas y de la mano de Zaloa visitaremos la exposición "Las mujeres de Eulalia Abaitua" y observaremos que no hay una única mirada posible.
**Día y hora:** Sábado 9 de octubre, 11:00 h.
Inscripciones: https://www.enkarterrimuseoa.eus/home/index.asp

JORNADA “SI EULALIA NOS VIERA: MUJERES DIVERSAS EN LA BIZKAIA ACTUAL” (ABELLANEDA)

Además de las dos visitas guiadas, el Museo de las Encartaciones ha organizado una jornada en torno a la figura de Eulalia Abaitua, pionera de la fotografía vasca que retrató el universo femenino de principios del siglo XX y captó la esencia de lo cotidiano. En un encuentro multicultural, mujeres diversas reflexionarán en torno a la obra de Eulalia redefiniendo el universo femenino vasco captado en su trabajo y trasladándolo a la Bizkaia actual. ¿Si Eulalia nos viera qué imagen de lo femenino plasmaría en su obra? ¿De qué manera nos reconocemos las mujeres del XXI en la obra de Eulalia?
**Día y hora:** Sábado, 16 de octubre, a las 11:00.
Inscripciones: https://www.enkarterrimuseoa.eus/home/index.asp